

MAÑARIKO HONTZA MUSEOA, NATUR ZIENTZIAK JASO ETA EMAN

Amagoia Mujika Telleria

Durangeldeko Natur Zientzien Museoa da Hontza, Mañarian kokatua. Harrigarria da bertako aretoetan pilatzen dena, biltegiaren parte txiki bat soilik bada ere. Enrike Huertaren proiektua da museoa, natur zientzien behaketari eskainitako bizitza oso baten isla. Jasotzen, behatzen, artxibatzen, zaintzen segitzen du.

Mañariko Hontza Museora sartu orduko sumatzen da usain sarkorra. Duela egun batzuk jaso dituzten itsasoko belaki batzuk prestatzen ari dira biltegian. Alkohol berezi batean sartuta daude. Geroagoko lanak izango dira behatzea, ikertzea, sailkatzea eta biltegian artxibatzea. Horretan darama Enrike Huertak, Hontza Museoa Fundazioko presidentea, 58 urte. Natur zientziak behatzen, horietatik ikasten eta beste batzuentzat ikasgarri izateko moduan jasotzen eta erakusten. Hala ere, bere lanaren parte txiki bat baino ez dago ikusgai Mañariko museoan. Biltegian 40.000 ale inguru omen dauzkate eta museoan, ikusgai, 1.500. Museoetako biltegiak horrelakoak izaten omen dira eta Mañariko aberatsa omen da erakusten duen ale kopuruan.

Durangeldeko Natur Zientzien Museoa familia museo bat dela esan daiteke. Enrike Huertak berak martxan jarritako proiektura batu baitira bere etxeak. Huertak pasioz bizi du museoa eta asmatu du grina hori ingurukoei kutsatzen. Lehen zaletasuna zuela esaten omen zuen, baina eskaintzen dizkion orduak eta lana ikusita, urte asko dira zaletasuna baino askoz gehiago dela.

Museora sartu orduko sumatzen dira pasio horren printzak. Begiek nekez topatzen dute lasai pausatzeke tokirik. Informazio asko eta tentagarria. Horregatik, asko eskertzen da Bego Caballerok patxadaz gidatzea. Bera arduratzen da Hontza Museoko bisitak gidatzeaz eta bertan dauden naturaren altxorren berri emateaz. «Eskolak, jubilatutaldea, lagun taldea, euskaltegiak, berbalagun taldea... askotariko bisitak izaten ditugu. Talde bakoitzaren beharretara moldatzen gara, baina normalean ordubete inguruko bisitak izaten dira». Egia da bisita nahi adina luzatzeko informazioa biltzen dutela museoko erakustokiek eta txokoek.



Animalia handienak biltzen dituen aretoak berehala lortzen du bisitariaren arreta.
Luis JAUREGIALTZO | FOKU

Munduko animalia handienetakoak biltzen dituen aretoan hasten da bisita. Albatros erratua, hego-zabalera kontuan hartuta, munduko txori handiena. «Hegoak guztiz zabalduta jarritz gero, punta batetik bestera doan distantzia kontuan hartuta, hauxe da hegazti handiena. Askotan kaioarekin nahasten da albatrosa eta bisitariei erakusten diegu albatrosa eta kaioa bereizten. Albatrosak mokoan zulo batzuk ditu. Itsas txoria denez, arrainak harrapatzen dituen ura ere hartzen du. Itsasoko ura denez, gazia da. Eta gatz hori gorputzarentzat osasungarria ez denez, hori botatzeko modu bat topatu behar du. Horretarako ditu zulo horiek». Zein makinaria perfektua den natura.

Munduko beste animalia handienetako bat ere hantxe, albatrosaren alboan: jirafa. «Jirafak mingaina luze-luzea dauka eta belarriak eta sudurra garbitzeko erabiltzen du. Gehien gustatzen

zaion janaria akazia zuhaitza da. Arantzaz asko dituen arren, jirafak ez du minik hartzen ahoan, oso aho indartsua daukalako. Ugaztuna denez, ugaztun guztiek bezala eta guk geuk bezala, zazpi lepaorno dauka jirafak. Haurrei galdetzen diedanean zenbat lepaorno dituen jirafak lepo luze horretan, ehun edo berrehun erantzuten didate. Harrituta geratzen dira zazpi dituela esatean. Baina hezur bakoitza tamaina handikoa da. Eta hori arazo bat da, zailtasun handiak izaten dituelako markurtzeko. Horregatik, ura edan behar duenean, hankak zabal zabalik jartzen ditu, *spagat* egiteraino. Eta lo ere zutunik egiten du, ez da inoiz etzaten, asko kostatzen zaiolako altxatzea».

Eta pareko paretan, karramarro erraldoiak; bata arra, eta, bestea, emea. «Karramarro arra eta emea bereizten erakusten diegu bisitariei. Horretarako baditugu ale batzuk gordeta, eskuan hartu eta gertutik ikus ditzaten. Mate-



rial didaktiko asko daukagu eta benetan lagungarria da guk emandako azalpenak osatzeko».

Caballerok kontatu duenez, haurren kezka nagusia izaten da museoan dauden animaliak nola hil diren jakitea. «Animalia horiek museora ekartzeko akabatu ote dituzten izaten da haien kezka nagusia eta askotan galdeztzen digute hori. Museoan dauden animalia guztiak berez hil dira, gaixotasunagatik, adinagatik, istripu bat tarteko... eta hil eta gero ekartzen ditugu museora. Batzuk dagoeneko prestatuta eta beste batzuk hemen prestatzen ditugu. Hori jakitean asko lasaitzen dira haurrak».

Hurrengo, ornogabeen gela. «Hemen dauden guztiak ornogabeak dira. Kartel urdin bakoitzak talde bat adierazten du. Hemen, adibidez, araknidoak daude. Eta bitxikeria bat bada hemen. Museoko ale guztiak benetakoak dira bat izan ezik, hauxe, kaparraren

Enrike Huerta, eskuin aldetik hasita bigarrena, museoaren sortzailea eta arima. Inguruan ditu familiakoak, proiektuan bete-betean sartuta daudenak. Mañarikoa familia museo bat dela esan daiteke.

Luis JAUREGIALTZO | FOKU

maketa bat da. Hemen garbi ikusten da nolakoa den kaparraren gorputza jan aurretik eta jan ondoren. Kaparrak arriskutsuak direla eta zenbait gaixotasun ekar ditzaketela ere kontatzen diegu. Harrituta geratzen dira. Eta jende askok intsektua dela pentsatu arren, kaparra araknidoa da eta zortzi hanka dauzka, araknido guztiek bezala».

Intsektuen atala dator ondoren. «Natura harrigarria da, simetria perfek-

tuak osatzen ditu. Intsektuena da naturan dagoen talderik handiena, milioi bat espezie daude eta bakar batzuk baino ez ditugu ezagutzen».

Tximeleta zoragarriak, kakalardo ederrak. «Hori ere lantzen dugu. Natura beste begi batzuekin ikusi behar dutela erakusten diegu. Kakalardoak, adibidez, nazkagarritzat jotzen ditu jende askok. Baina gertutik begiratuz gero, dituzten formak, koloreak, simetriak... ikusiz gero, oso ederrak direla konturatuko gara».

NATURAREN JAKINDURIA

Krustazeoak ere, hamaika. «Hona iristean, pintza handi batzuk ateratzen ditugu, otarrainaren antena. Lehen begiratuan ez ikusi arren, ukituz gero azkar igartzen da antena horietan ezten mordoa dutela. Eta kontatzen diegu hori defentsarako erabiltzen dutela. Eraso egiten dietenean, erasotzaileari, gutxienez, mina emateko».

Karramarro ermitauak etxea aldean darama. Baina hazten denean, handitzen denean, eskola txiki geratzen zaio eta bazter batean uzten du, hutsik dagoen beste handiago bat topatu eta berretzat hartzeko. Eta karramarro biolinistak ere merezi du gelditu eta gertutik begira egotea. «Pintza bat luzeagoa dauka eta badirudi biolina jotzen ari dela. Eta borrokaren batean pintza hori galduz gero, beste aldekoa

«Eskolak, jubilatutaldea, euskaltegiak, lagun taldea, berbalagun taldea... askotariko bisitak izaten ditugu. Talde bakoitzaren beharretara moldatzen gara, baina normalean ordubete inguruko bisitak izaten dira»

«Museoan dauden animalia guztiak berez hil dira, gaixotasunagatik, adinagatik, istripu bat tarteko... eta hil eta gero ekartzen ditugu museora. Hori jakitean asko lasaitzen dira haurrak»



garatu eta handitu egiten zaio. Eta be-
rria finago eta txikiago hazten da. Gai-
tasun hori dauka. Horregatik, pintza
handiena ez da beti eskuin aldekoa, al-
dez aldatu daiteke».

Poriferoak. Landare itxura duten
arren, animaliak dira. Gorputza zuloz
beteta dute eta planktona jaten dute.
«Ura iragazten dute denbora guztian,
eta, 30 gramo janari lortzeko, mila litro
ur iragazi behar dituzte. Horrek adie-
razten du oso langileak direla, geldirik
daudela iruditu arren. Batzuk bigunak
dira, eta, beste batzuk, gogorrak».

ESKOLAN LANDUTAKOA, SAKONDU

Goiko solairura bidean, geldialdia. Uki-
tu daitezkeen aleak. «Ileak, lumak, la-
rrua... asko gustatzen zaie hau guztia
ukitzea», kontatu du Caballerok. Behin
goiko solairuan, haurrak eutsi egin be-


har izaten ditu, burua luzatzen baitute
animalia handiagoak ageri diren areto-
etara. Liburuetan eta filmetan ikusten
dituztenak, hantxe, parez pare.

Beraz, moluskuak gelara erakartzen
ditu lehendabizi. «Eskolan lantzen di-
tuzten gaietan sakontzen dugu hemen.
Horregatik, neurrira moldatzen dugu
bisita bakoitza, lantzen ari diren gai-
aren eta hurrek duten adinaren arabe-
ra». Oskolak dituzten olagarroak, de-
fentsarako pozoia botatzen duten
moluskuak, perlak egiten dituztenak...

Australiako muxila erraldoi baten
aurrean paratuta, elizetan ur bedeinka-
tua jasotzen duten harraska bereziak
datoz gogora. «Handia iruditzen ote
zaien galdetzen diet hurrei eta baietz,
sekulakoa iruditzen zaiela. Ba hemen
ageri dena oso-oso gaztea eta txikia da.
Muxila mota honek heldua denean

**«Eskolan lantzen dituzten gaietan sakontzen dugu
hemen. Horregatik, neurrira moldatzen dugu bisita
bakoitza, lantzen ari diren gaiaren eta hurrek
duten adinaren arabera»**

**«Natura beste begi batzuekin ikusi behar dutela erakusten
diegu. Kakalardoak, adibidez, nazkagarritzat jotzen ditu
jende askok. Baina gertutik begiratuz gero, dituzten formak,
koloreak, simetriak... oso ederrak direla konturatuko gara»**



Ezkerreko irudian, karramarro
erraldoiak paretan eta uneotan ikusgai
dagoen leize hartzen inguruko
erakusketa erakustokian.
Eskuinaldean, kakalardo parea.
Luis JAUREGIALTZO | FOKU

200-300 kiloko pisua har dezake eta
hogeit metrotik gorako neurria».

Erakustoki arrosan dauden animalia
guztiak talde berekoak dira; ekinoder-
matuak, itsas izarrak tartean. «Haien
berezitasun nagusia da gorputza
bost zatitan banatuta dutela». Eta tar-
tetxoa ematen du bisitariak hori horre-
la dela baieztatzen. Izan ere, zaila egi-
ten da ulertzea itxuraz hain
desberdinak direnak talde berekoak di-
rela. Naturaren lilurak.

Animalia handiagoen eta lehen bis-
tara ezagunagoen gelara iritsita, den-
bora behar da bakoitzari buruzko in-
formazioa hartzeko. «Oihaneko
animalien eta animalia exotikoen txo-
ko hau asko gustatzen zaie. Bisitaren
amaieran, denbora uzten diegu areto
hauetan lasai egon daitezen. Animalia
handiagoak dira eta ikusgarriagoak
iruditzen zaizkie. Etengabe ez ukitzeko
esaten diegun arren, tentazioa handia
da eta lanak izaten dituzte eusten».

Hartzak, pumak, azeriak, ostrukak,
lehoiak, sugeak, askotariko hegaztiak...
Mañariko Hontza Museoko atetik ate-
ratzean bisitariak sentitzen du toki as-
kotan egon dela eta asko ikasi duela.
Sentitzen du patxada hartu duela natu-
ra den makinaria perfektu eta liluraga-
rri horri erreparatzeko. Eta, bai, natu-
rak beti liluratzen du arretaz begira
dagoena.

ENRIKE HUERTA HONTZA MUSEOA FUNDAZIOKO PRESIDENTEA

«Beti jasotzen dugu eskaintzen digutena; ondarea ezin da bota. Jaso, kontserbatu eta zaindu egin behar da»

Hontza Museoa Fundazioaren presidentea da Enrike Huerta. Museoaren sortzailea, bultzatzailea, ikertzailea... Hontzako arima nekaezina.

Hogeita hamar urte baino gehiago dira museoaren proiektua hasi zuela. «Hasieran beste toki batean hasi ginen, baina ez zen oso aproposa. Horregatik, hogeita lau urtean itxita egon da eta duela bost urte zabaldu genuen hemen, egoitza berri honetan. Orain askoz txukunago dago guztia». Ateak jendeari itxiak izanagatik, museoak ez da itxita egon, Hontzako erakustokietan 58 urteko ikerketa lanaren parte txiki bat baino ez baitago bistan.

Durangaldeko Natur Zientzien Museoa Enrike Huertaren bizitzako zutoin garrantzitsua da. «Ni irakasle bezala aritu naiz lanean. Hasieran akaso zaletasuna izango zen, baina, denborarekin hartu duen pisua ikusita, ez nuke esango zaletasun hutsa denik. Dagoeneko jubilatuta nago, baina lehen bezala orain nire denboraren parte handia eskaintzen diot museoari. Lan asko egiten dut eta ez dut dirurik kobratzen», dio umorez.

Biologian aditua, malakologian espezializatua –moluskuen ikerketan–, museologian jantzia... jakin-min eta jakintza zabaleko begirada dauka Enrike Huertak. «Egun nire lan esparrua egungo itsas ikerkuntzan zentratuta dago. Baina museoak tarteko, natur zientzia guztiak ikertu ditut eta denak maite ditut. Unibertsitatean bost urtez ikasten duzu, baina nik 58 urte daramatzat etengabe ikasten».

Txispa 12 urte zituela piztu zitzaion. «Nik esaten dut parean zenbait kasualitate gertatu zirela. Etxean itsas kurkuilu bat nuen. Orain museoan dago ikusgai, istorio honen guztiaren lehen alea. Egun batean Bilbora joan nintzen gurasoekin eta beste bi itsas

kurkuilu topatu nituen. Eta horrela hasi nintzen arreta jartzen eta bilduma osatzen. Museoaren ideia 14 urte nituela hasi zen forma hartzen. Donostiako Aquariumera joan nintzen eta pentsatu nuen hemen inguruan ez zegoela natur zientzien museorik. Zergatik ez hasi materiala biltzen etorkizunean museo bat osatzeko? Eta etorkizun hura hemen dago, Hontza Museoa».

1997ko ekainean inauguratu zuen museoaren lehen urratsa Mañarian bertan. «Tokia ez zen batere egokia, behin-behinekoa izan zen, baina garai hartan 143 eskola etorri ziren hiru urtean. Aise esaten da».

1.500 ale daude erakusgai, mundu guztikoak eta natur zientzien alor guztietakoak. Biltegian, 40.000 ale baino gehiago daude. «Gure lana ale horiek guztiak biltzea, ikertzea, txukuntzea eta ordenatzea da. Guztiak donazioak dira; eskoletatik, beste museo batzuetatik, lagunen eskuetatik, unibertsitateetatik, herritarren eskutik... 58 urtean sekulako mugimendua egon da

Lerroon azpian, Enrike Huerta, museoeko biltegian, fosil batekin lanean. 12 urte zituela piztu zitzaion natur zientzieko maitasuna eta bizitza osoa darama zaletasun horri estu lotuta.
Luis JAUREGIALTZO | FOKU



hemen. Garrantzitsua da jendeak museoak existitzen dela jakitea. Hartara, piezaren bat emateko daukatenean zurekin akordatzeko dira. Gaur-biharretan Altsasu aldera joan behar dugu pieza batzuen bila. Beti jasotzen dugu eskaintzen digutena. Ondarea ezin da bota. Ondare hori jaso, kontserbatu eta zaintzea da gure lana». Pena omen da Huertaren esanean, jasotako guztia ezin erakutsia. «Baina museoetako funtzionamendua horrelakoa da. Museo batean ezin da sekula erakutsi dagoen guztia. Eta, hala ere, museo honetan ale dezente dauzkagu ikusgai». Ale asko eta alor askotakoak.

SEIEHUN IKERTZAILEKO SAREA

Mundu mailako errekor asko topa daitezke Mañariko museoan, Huerta horretara jarri delako. «Munduko hiru errekor dauzkagu», nabarmendu du. Albatros erratua eta pelikano zuria dira munduan hego-zabalera handiena duten hegaztiak. 3,60 metrora irits daitezke. Hontzan 2,82 metroko hego-zabalera duen albatros bat dute. Bigarrena, munduko karramarro handiena. «Hemen daukagunak 2,90 metroko zabalera dauka, baina berez 3,40 metrora ere irits daiteke», zehaztu du. Eta hirugarren errekorra, ezagunagoa, jirafa.

Karramarro erraldoiaren alboan argazki bat ikus daiteke, karramarroa topatu zuten itsasontzian jaso. «Karramarro hori topatu zuenak Japoniako ikertzaile bati eman zion abisua. Ikertzaile hori lagunak dut eta hark eman zidan niri karramarro erraldoi horren berri. Mundu mailan seiehun bat ikertzailearen sarea osatzen dugu eta denok daukagu elkarren berri».

Mañariko museoak gerturatzen dira lau urtetik hasi eta unibertsitate bitarteko ikasleak. «Bakoitzak bere helburuak dauzka eta bakoitzari bere beharren arabera bisita antolatzen diogu. Baina oso lan garrantzitsua da museoak egiten duena. Liburuetan ikusten dituzten gauzak errealitate ekartzeko modu bat da eta maiz harrituta geratzen dira haurrak; liburuan txikia zirudiena berez handia da eta alderantziz. Museoak bisitatzeko ohitura sortzea, ingurua behatzeko gogoak piztea, naturarekiko jakin-mina sortzea... lan hori oso garrantzitsua da».